

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTATU NAGUSIA

3/2021 Foru Araua, apirilaren 15ekoa, 2021. urterako zerga alorreko aldaketa jakin batzuk onesten dituen.

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAK

Jakinarazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu dutela «3/2021 Foru Araua, apirilaren 15ekoa, 2021. urterako zerga alorreko aldaketa jakin batzuk onesten dituen»; eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut, aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek nahiz agintariek, bete eta betearazi dezaten.

Donostia, 2021eko apirilaren 15a.—Markel Olano Arrese, diputatu nagusia. (2584)

HITZAURREA

Zergen aplikazioaz arduratzen diren organoek zerga araudia etengabe aplikatzeak agerian uzten du, zenbait kasutan, beharrezkoa dela aldaketak egitea lurralde historikoko erakundeei arautu ditzaketen tributuen erregulazioetan. Era berean, tributuz kanpoko beste arau esparruetan tributuen araudian zuzenean edo zeharka eragiten duten alderdiak aldatu izanak eskatzen du araudi hori aldaketa horietara behar bezala egokitzea, haren koherentzia eta egitura gordetzeko.

Horretarako, beharrezkotzat jotzen da foru arau honen bitartez zerga arloko zenbait aldaketa sartzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistemaren hamaika arauen barruan.

Hartutako neurrien artean, nabarmentzen da atzerrian kokatutako ondasun eta eskubideei buruz informatzeko betebeharraren aldaketa eta horrek zergetan duen eragina. Aldaketa hori egiteko, betebeharraren arautzen duten artikulua aldatzen dira bai Zergen Foru Arau Orokorrean, bai pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Foru Arauan eta bai sozietateen gaineko zergaren Foru Arauan.

Atzerrian kokatutako ondasun eta eskubideei buruzko informazioa emateko betebeharra garrantzi handiko tresna bihurtzen da, dudarik gabe, zerga iruzurrari aurre hartzeko eginkizunean. Hori hala izanik ere, Europako Batzordeak zalantzan jarri du neurri hori, haren ustez, Europar Batasuneko zuzenbidea urratu lezakeelako. Horren frogara dugu Batzordeak Espainiaren aurkako errekurtso bat jarri duela Europar Batasuneko Justizia Auzitegian, betebeharraren horrekin lotuta.

Argi utzi beharra dago, dena den, Auzitegi horrek oraindik ez duela iritzirik eman gai horri buruz, eta, beraz, informatzeko betebeharrak indarrean jarraitzen du. Nolanahi ere, Auzitegiak neurriaren aurkako epaia ematen bada etorkizunean, horrek zuzenean ondorioak izan ditzake Gipuzkoako Zerga Administrazioak, betebeharraren horretan oinarrituta, iruzur fiskala prebenitzeko egiten dituen jarduketetan.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DIPUTADO GENERAL

Norma Foral 3/2021, de 15 de abril, por la que se aprueban determinadas modificaciones tributarias para el año 2021.

EL DIPUTADO GENERAL DE GIPUZKOA

Hago saber que las Juntas Generales de Gipuzkoa han aprobado y yo promulgo y ordeno la publicación de la siguiente «Norma Foral 3/2021, de 15 de abril, por la que se aprueban determinadas modificaciones tributarias para el año 2021», a los efectos de que todos los ciudadanos y ciudadanas, particulares y autoridades a quienes sea de aplicación, la guarden y hagan guardarla.

San Sebastián, a 15 de abril de 2021.—El diputado general, Markel Olano Arrese. (2584)

PREÁMBULO

La aplicación continuada de la normativa tributaria por los órganos encargados de la misma deja al descubierto, en algunos casos, la necesidad de realizar modificaciones en las regulaciones de los distintos tributos en los que las instituciones del territorio histórico tienen competencia normativa. Así mismo, las modificaciones operadas en otros ámbitos normativos distintos a los tributarios, de aspectos que directa o transversalmente inciden en la regulación tributaria, exigen realizar las debidas adaptaciones de esta normativa a aquellos cambios, a fin de guardar su coherencia y estructura.

Con tal objeto, se considera necesaria la aprobación de la presente norma foral que introduce modificaciones tributarias en el ámbito de once normas del sistema tributario del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Entre las medidas adoptadas cabe destacar la modificación de la obligación de información sobre bienes y derechos situados en el extranjero y su impacto en los diferentes impuestos, la cual se lleva a cabo a través de la modificación de los artículos que regulan la misma, tanto en la Norma Foral General Tributaria como en las Normas Forales reguladoras del impuesto sobre la renta de las personas físicas y del impuesto sobre sociedades.

La obligación de información sobre bienes y derechos situados en el extranjero constituye, sin duda, una herramienta de gran importancia de prevención del fraude en el ámbito tributario. No obstante, la Comisión Europea ha puesto en entredicho la misma, al considerar, según su opinión, que dicha medida podría vulnerar el derecho de la Unión Europea. Prueba de ello es que la Comisión ha interpuesto un recurso contra España ante el Tribunal de Justicia de la Unión Europea, en relación a esta obligación.

Conviene dejar muy claro que el Tribunal no se ha pronunciado aún sobre este asunto y, en consecuencia, la obligación de información sigue vigente. No obstante, si en el futuro pronunciamiento el Tribunal falla en contra de la medida, esto podría tener consecuencias directas en las diversas actuaciones de prevención del fraude fiscal que la Administración tributaria de Gipuzkoa realiza y que tienen su fundamento en esta obligación.

Egoera horren aurrean, Gipuzkoako Lurralde Historikoak ezin du utzi alde batera, ez eta arriskuan ikusi ere, zerga iruzurraren aurka hain eragin eta garrantzi handia duen neurri baten segurtasun juridikoa, zerga iruzurra baita bere Zerga Administrazioaren helburu nagusietako bat. Horregatik, betebeharraren inguruan auzitegiek erabaki dezaketena aurre hartze aldera, beharrezko irizten da figura hori aldatzea, haren erregulazioari segurtasun juridiko gehiago emateko eta, aldi berean, Auzitegiak eman dezakeen epaiak hura edukirik gabe uztea galarazteko.

Betebeharraren hori Erkidegoko zuzenbidearen aurkakoa izan litekeela jotzeko Europako Batzordeak erabili duen argudio nagusietako bat, labur aipatua, da Batasunaren barruan dauden ondasunetarako ezin dela tratatu desberdintasunik egon, zergadunaren egoitzako herrialdean egon ala ez. Hortaz, a sensu contrario, Batzordeak ez du auzitan jartzen neurriaren balioa Europar Batasunetik kanpo dauden ondasunetarako, baina bai haren lurraldearen barruan kokatuta daudenetarako. Europako Batzordeak egiten duen banaketa bikoitz horretatik abiatuta, atzerrian kokatutako ondasun eta eskubideei buruzko informazioa emateko betebeharraren arauketa berria eta hura ez betetzearen ondorioak bereizita daude oso ondo desberdintzen diren bi eremutan: batetik, erregulazio bat ezartzen da ondasunak eta eskubideak Europar Batasunaren barruko herrialde eta lurraldeetan kokatzen direnerako, eta, bestetik, beste erregulazio bat ezartzen da Batasunetik kanpo kokatzen direnerako.

Horrela, printzipioz, Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetan kokatutako ondasun eta eskubideei dagokienez, bai informatzeko obligazioak eta bai haren urraketak apenas du aldaketarik. Horrek esan nahi du Zerga Administrazioarentzat zerga iruzurra prebenitzeak indar eta balio handiko tresna izaten jarraitzen duela, eta administrazioak zilegi duela hura erabiltzea zergadunen ondasunak Europar Batasunetik kanpo kokatzen direnean (ez da ahaztu behar esparru honetan paradisu fiskal ugari daudela).

Funtsezko aldaketa, beraz, sortzen da atzerrian kokatu baino Europar Batasunaren barruan dauden ondasun eta eskubideei dagokienez. Zentzu horretan, eta gaingiroki, zehapen araubidearen erregela orokorrak erabiltzen dira. Bestalde, kontuan izanik Batzordeak auzitan jartzen duela ondasunak Europar Batasunaren barruan daudenean erregularizatzeko eperik ez egotea, epe berri epe bat ezartzen da herrialde horietan kokatutako ondasunen aitorpena erregularizatzeko, gehienez ere 10 urtekoa.

Hala ere, epe hori 4 urteko preskripzio epe orokorra baino luzeagoa da, eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak berak hura justifikatu du, *Passenheim-van Schoot C-157/08* gaiaren bereziki, bertan onartzen duen arau batek esaten baitu «beste estatu kide batean dauden ondasunen kasuan epe luzeago bat aplikatzen dela». Herbehereei dagokien kasu partikularrean, onartzen du kasu horietarako 12 urteko likidazio epe osagarria ezartzea, zerga kontrolen eraginkortasuna bermatu eta zerga iruzurraren aurka egiteko.

Hori, jakina, zerga iruzurra, zerga ihesa eta abusuzko jardunbideak prebenitzeko beharregatik gertatzen da, edo zerga kontrolen eraginkortasuna bermatzeko beharregatik; izan ere, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren iritziz, premia horiek, batera hartuta, interes orokorreko nahitaezko beharrak dira, eta Auzitegiak ezarritako oinarriko askatasunak baliatzeko murrizketa justifikatu dezakete.

Bestalde, zalantzan jar litezke bai kontrol gehigarri horien beharra eta bai horrelako obligazio baten beharra. Izan ere, gaur egun nabarmen hazi dira Europar Batasuneko herrialdeen artean

Ante esta situación, el Territorio Histórico de Gipuzkoa no puede prescindir ni ver peligrar la seguridad jurídica de una medida de enorme incidencia y gran impacto en la lucha contra el fraude fiscal, ya que éste es uno de los objetivos primordiales de su Administración tributaria. Por ello, ante el eventual destino que pudiera sufrir tal obligación en los tribunales, se considera imprescindible modificar esta figura, con el objetivo claro de dotar a su regulación de una seguridad jurídica sólida y propiciar, a su vez, que el eventual fallo del Tribunal no deje sin contenido la misma.

Uno de los principales argumentos utilizados por la Comisión Europea para considerar que la obligación podría ser contraria al derecho comunitario es, en resumen, el hecho de que no puede haber diferencias de trato para bienes situados dentro de la Unión, con independencia de que estén en el país de residencia del contribuyente o fuera de él. A sensu contrario, pues, la Comisión no cuestiona la validez de la medida para bienes situados extramuros de la Unión Europea, pero sí lo hace para los que se sitúan dentro de su territorio. Partiendo de esta doble separación de supuestos que realiza la Comisión Europea, la nueva regulación de la obligación de información sobre bienes y derechos situados en el extranjero, y las consecuencias derivadas de su incumplimiento se separan en dos ámbitos muy bien diferenciados: por un lado se establece una regulación para cuando los bienes y derechos se sitúen en países y territorios que se encuentren dentro de la Unión Europea, y por otro se establece otra regulación para cuando se sitúen fuera de la misma.

Así, en principio, con respecto a los bienes y derechos situados en países que no pertenecen a la Unión Europea, la obligación y las consecuencias de su incumplimiento apenas sufren modificaciones. Ello supone que la Administración tributaria mantiene la herramienta de prevención del fraude fiscal de gran fuerza y valor, que podrá utilizar cuando los contribuyentes sitúen bienes fuera de la Unión Europea (téngase en cuenta que en este ámbito se encuentran un gran número de paraísos fiscales).

La modificación sustancial surge, por tanto, con respecto a los bienes y derechos situados en el extranjero pero dentro de la Unión Europea. En este sentido, en general, y a grandes rasgos, se utilizan las reglas generales en relación al régimen sancionador. Por otro lado, se establece un nuevo plazo para la regularización derivada de la declaración de bienes situados en estos países, hasta un máximo de 10 años, debido a que la Comisión cuestiona la ausencia de plazo en relación a la posible regularización cuando los bienes se encuentren dentro de la Unión Europea.

Este plazo, no obstante, es superior al general de prescripción de 4 años, y su establecimiento se justifica por el propio Tribunal de Justicia de la Unión Europea, en particular en el asunto *C-157/08, Passenheim-van Schoot*, donde acepta una norma según la cual «se aplica un plazo más largo en el caso de los bienes poseídos en otro Estado miembro». En el caso particular, correspondiente a Países Bajos, permite establecer para estos casos un plazo de liquidación complementario de 12 años para garantizar la eficacia de los controles tributarios y luchar contra el fraude fiscal.

Ello se debe, obviamente, a la necesidad de prevenir el fraude fiscal, la evasión fiscal y las prácticas abusivas, o por la necesidad de garantizar la eficacia de los controles fiscales, necesidades estas que, en opinión del Tribunal de Justicia de la Unión Europea constituyen en su conjunto necesidades imperativas de interés general capaces de justificar una restricción al ejercicio de las libertades fundamentales consagradas por el Tribunal.

Por otro lado, se podría cuestionar la necesidad de estos controles adicionales y la necesidad de una obligación de este tipo, debido al crecimiento de obligaciones de intercambio entre

informazioa trukatzeko obligazioak, Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauak, zuzeneko fiskalitatearen alorreko lankidetzari administratiboari buruzkoak, ekarritakoak hain zuzen. Alabaina, Europako Batzordeak berak aitortzen du informazio trukea oso ahula dela oraindik. Aurrenik, ondasun askori buruzko informazio trukea sorburuko herrialdeak datu hori duenean bakarrik eskatu daitekeelako; aldiz, sorburuko herrialdeak datu hori ez badu, informazio trukea ez da derrigorrezkoa, eta, horren ondorioz, bada-go informazio ugari sorburuko estatu kideetan ez biltzeagatik trukatu gabe geratzen dena.

Baina, gainera, Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentzua, zuzeneko fiskalitatearen alorreko administrazio lankidetzari buruzkoa, aplikatzeari buruz egindako txostenak (Brusela, 2017-12-18), adierazi du arazoak daudela zerga administrazioen arteko lankidetzan. Onartzen du lankidetzari hori ez dela modu eraginkorrean aplikatzen kasu guztietan, eta informazio trukea ez dela behar bezain ohikoa.

Horrenbestez, Europar Batasuneko estatu kideen artean informazioa trukatzeko sistemak oraindik dituen gabeziak kontuan hartuta, gaur egun justifikatuta dago eta egokia da Europar Batasunaren barruan dauden ondasunen gainean horrelako kontrol gehigarriak ezartzea, hain zuzen ere iruzur fiskala, zerga ihesa eta abusuzko jardunbideak prebenitzeko beharragatik. Gainera, Auzitegiak berak interes orokorreko nahitaezko premiazat jotzen ditu behar horiek, Auzitegiak aitortutako oinarriko askatasunak baliatzeko murrizketa justifikatzen dutenak, gorago esan dugun bezala.

1. artikulua urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Araua aldatzen du, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarena, eta hiru une diferente bereizten ditu haren aplikazioan. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, bi aldaketa sartzen ditu. Lehenengoak 41.2 artikuluari eragiten dio, eta haren helburua da ezartzea akzioak edo partaidetzak langileen alde eskualdatzen denean ondare irabazi edo galerarik ez dela egongo baldin eta eskuratzailea akzioak edo partaidetzak eskualdatzen zaizkion entitateko edo taldeko entitateetako langileek bakarrik partaidetutako entitate bat bada. Berritasuna da erretiroa hartuta dauden langileei ere aukera ematen zaiela langileek bakarrik partaidetutako entitatearen akzioetan parte hartzeko.

89.1 artikulua aldaketak eduki bera du, baina, kasu honetan, langileek beren entitate enplegatzailean parte hartzeagatik araututako kenkariari aplikatuta. Horrekin bilatzen dena da akziodunen osiera moderatzea aktiboan dauden beste langile batzuek erretiroa hartu duten langileen partaidetza eskuratzeko likidezia ez izatea ez dadin izan oztopo bat pizgarria aplikatzeko.

Ondorioen bigarren unea 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten da, eta zazpi aldaketa dakartza. Lehenengo 9. artikuluko 9. eta 21. apartatuei dagokie, eta horietan arau igorpenak eguneratzen dira.

Bigarren aldaketak, 9. artikulua barruan hau ere, errenta salbuetsizat jotzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoan 1978. eta 1999. urte bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematen dien uztailaren 28ko 12/2016 Legearen arabera aitortzen diren kalte-ordainak.

Hirugarren aldaketak berrikusi egiten du enpresetako jantoki zerbitzuaren zeharkako formulatik ondorioztatzen diren gauza bidezko ordainsariak gauza bidezko lan etekintzat ez hartzeko kasua, egoera hori urrutiko lanaren edo telelanaren kasuan ere aplikagarria dela argitzeko.

Laugarren aldaketa kapital higigarriaren etekinaren izaerarekin lotuta dago (34. artikulua), eta zer ikusia du izaera bereziko eskubide ekonomikoak gauzatzeagatik jasotzen diren zenbatekoekin, eskubide horiek, zuzenean edo zeharka, Gipuzkoako

países de la Unión Europea a través de la Directiva 2011/16/UE del Consejo relativa a la cooperación administrativa en el ámbito de la fiscalidad directa. Ahora bien, la propia Comisión Europea reconoce que el intercambio informativo es aún muy débil. En primer lugar, porque el intercambio, en relación a muchos bienes, es exigible tan solo cuando el país de origen disponga del dato en cuestión, pero si aquél no dispone del dato, no resulta obligatorio intercambiarlo, de modo que existe mucha información que, como no se recopila en los Estados miembros de origen, no se intercambia.

Pero además, el Informe sobre la aplicación de la Directiva 2011/16/UE del Consejo relativa a la cooperación administrativa en el ámbito de la fiscalidad directa, Bruselas, 18.12.2017, indica que existen problemas en la cooperación entre las Administraciones tributarias. Admite que no se aplica de manera eficaz en todos los casos y que el intercambio de información no es tan frecuente como debiera.

Así pues, considerando las deficiencias que todavía presenta el sistema de intercambio de información entre los Estados miembros de la Unión Europea, a día de hoy resulta justificado y proporcionado exigir este tipo de controles adicionales sobre bienes situados dentro de la Unión Europea, precisamente por la necesidad de prevenir el fraude fiscal, la evasión fiscal y las prácticas abusivas, necesidades que el propio Tribunal califica de imperativas de interés general capaces de justificar una restricción al ejercicio de las libertades fundamentales consagradas por el Tribunal, tal y como hemos dicho anteriormente.

El artículo 1 modifica la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y distingue tres efectos temporales en su aplicación. Con efectos a partir de 1 de enero de 2019 incluye dos modificaciones. La primera, que afecta a su artículo 41.2, se refiere a la no existencia de ganancia o pérdida patrimonial con ocasión de la transmisión de acciones o participaciones a favor de personas trabajadoras, cuando la adquirente sea una entidad participada exclusivamente por personas trabajadoras de la entidad cuyas acciones o participaciones se transmiten o de entidades del grupo. La novedad consiste en permitir la presencia de personas trabajadoras ya jubiladas en el accionariado de la entidad participada exclusivamente por personas trabajadoras.

Igual contenido tiene la modificación del artículo 89.1, pero en este caso aplicado a la deducción por participación de las personas trabajadoras en su entidad empleadora. Se modera así la composición del accionariado para evitar que una situación de falta de liquidez para adquirir la participación de las personas trabajadoras ya jubiladas por otras personas trabajadoras en activo, pudiera ser un obstáculo de cara a la aplicación del incentivo.

El segundo efecto temporal es a partir del 1 de enero de 2020, e incluye siete modificaciones. La primera se refiere a los apartados 9 y 21 del artículo 9, y en ella se actualizan sendas remisiones normativas.

La segunda modificación también referida al artículo 9, incluye como rentas exentas, las indemnizaciones reconocidas conforme a las previsiones de la Ley 12/2016, de 28 de julio, de reconocimiento y reparación de víctimas de vulneraciones de derechos humanos en el contexto de la violencia de motivación política en la Comunidad Autónoma del País Vasco entre 1978 y 1999.

La tercera modificación revisa el supuesto de no consideración de rendimiento de trabajo en especie previsto para las retribuciones en especie derivadas de fórmulas indirectas de prestación del servicio de comedor de empresa, con la finalidad de aclarar que dicho supuesto resulta también de aplicación en el caso del trabajo a distancia o teletrabajo.

La cuarta modificación está relacionada con la naturaleza de rendimiento de capital mobiliario, artículo 34, de las cantidades percibidas por la materialización de derechos económicos de carácter especial que provengan directa o indirectamente de

Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren VI. tituluko IV. kapituluaren ezarritako araubide berezia aplikagarri zaien sozietateetatik edo arrisku-kapitaleko funtsetatik datozenean. Tratamendu hori emateko eskatzen diren beharrezkoen bat da etekinak jasotzen dituenak langile edo goi zuzendaritzako kide izan behar duela sozietate kudeatzailean edo arrisku-kapitaleko sozietatean, eta bertan partaidetza bat edukitzea, zuzenean edo zeharka. Aldaketaren helburua da argitzea baldintza hori betetzat joko dela partaidetzen titulartasuna ezkontideek edo izatezko bikotekideek partekatzen dutenean, eta horietako bat aipatutako sozietate kudeatzailean edo arrisku-kapitaleko sozietatean langile edo goi zuzendaritzako kide denean edo izan denean.

Bosgarren aldaketa 50. artikuluan arautzen diren justifikatu gabeko ondare irabaziekin lotuta dago, zergadunak atzerriko ondasun eta eskubideei buruz informatzeko betebeharra bete ez duenean. Edukiari dagokionez, ikus gorago esandakoa.

Seigarren eta zazpigarren aldaketek 57. artikuluan jasotako denborazko egozpenaren erregelari eragiten diete. Zehazki, Espainiako Landa Garapenerako Esparru Nazionalean nekazari gazteek lehen instalazioa egiteko aurreikusitako laguntza publikoaren egozpenarekin daude lotuta. Laguntza horiek nola gauzatu diren, hau da, jardueraren garapenerako erabiltzen diren edo nekazaritza enpresa sozietarioen kapitalean parte hartzeko erabiltzen diren, jardueraren etekin gisa edo ondare irabazi gisa egotziko dira, baina betiere lau zatitan, horiek lortzen diren zergaldian eta hurrengo hiruetan.

Ondorioen hirugarren unea 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten da, eta hamabi aldaketa hartzen ditu, horietako asko pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren gai desberdinei buruzkoak, eta horietako batzuk komunak. Azken horietatik hasita, 17., 18., 60., 70. eta 106. artikulua aldatzen dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko ekainaren 3ko 2003/41/EE Zuzentaraua egiten zen igorpena (enpleguko pentsio funtsen jarduerari eta gainbegiratzeari buruzkoa) eguneratzeko. Zuzentarau horren ordez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341/EB Zuzentzaraua aipatzen da, enpleguko pentsio funtsen jarduerari eta gainbegiratzeari buruzkoa. Era berean, 27. artikuluan igorpena egin beharrean martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatuko I. eranskinera, gaur egun indarrean dagoen testu bategineko I. eranskinera igortzen da (Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Bategina, urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia).

Elkar lotuta dauden beste aldaketa batzuk foru arauaren 89 ter artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren sorrera berriko entitate berritzaileen inguruan sartzen diren lau aldaketak dira. Lehenengoa 17. artikuluan jasotako erregulazioari buruzkoa da, eta haren helburua da ezartzea ezen langileek eskuratutako akzio eta partaidetzen merkatuko balio normalaren eta akzio eta partaidetza horien eskurapen balioaren arteko diferentzia positiboan agerian jartzen bada foru arauaren 89 ter.1 artikuluan aipatzen diren entitateen akzio edo partaidetzen gaineko aukerak baliatzeagatik, ez dela gauza bidezko etekintzat hartuko aukera baliatzeko eskubide hori ematen denetik gutxienez hiru urte igaro ondoren gauzatzen bada. Langileek eraturako enpresa proiektuari egonkortasuna eta etorkizunerako proiektio bat eman nahi zaio horrekin. Arrazoi horretan ere oinarrituta, aldatzen da 20. artikulua, akzioen gaineko aukerei buruzkoa.

Hirugarren aldaketak aurrezpenaren zerga oinarrian errentak integratu eta konpentsatzea arautzen duen 66. artikuluari eragiten dio. Kasu honetan, zilegi jotzen da entitate berritzaile-

societades o fondos de capital riesgo a los que resulten de aplicación el régimen especial establecido en el capítulo IV del título VI de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Entre los requisitos exigidos para tal tratamiento está el de que quien perciba dichos rendimientos sea persona trabajadora o alta directiva en la sociedad gestora o sociedad de capital riesgo, además de participe, directa o indirectamente. Pues bien, la modificación persigue aclarar que se entiende cumplido dicho requisito cuando la titularidad de las participaciones sea compartida por cónyuges o miembros de la pareja de hecho, y una o uno de ellos ostente o haya ostentado la condición de persona trabajadora o alta directiva en las citadas sociedad gestora o sociedad de capital riesgo.

La quinta modificación está relacionada con las ganancias patrimoniales no justificadas reguladas en el artículo 50 cuando el contribuyente no haya cumplido con la obligación de informar sobre bienes y derechos en el extranjero. En relación a su contenido nos remitimos a lo referido anteriormente.

La sexta modificación y la séptima modificación afectan a las reglas de imputación temporal recogidas en el artículo 57, y están relacionadas con la imputación de las ayudas públicas concedidas para la primera instalación de jóvenes agricultores y agricultoras previstas en el Marco Nacional de Desarrollo Rural de España, que dependiendo de su materialización, esto es, al desarrollo de la actividad o a la participación en el capital de empresas agrícolas societarias, se imputaran en forma de rendimiento de actividad o en forma de ganancia patrimonial, pero siempre por cuartas partes en el período impositivo en el que se obtengan y en los tres siguientes.

El tercer efecto temporal es a partir de 1 de enero de 2021, y abarca doce modificaciones con incidencia en muy diversos aspectos del impuesto sobre la renta de las personas físicas, algunas de las cuales son comunes. Empezando por estas últimas, se modifican los artículos 17, 18, 60, 70 y 106 para actualizar la remisión a la Directiva 2003/41/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 3 de junio de 2003, relativa a las actividades y la supervisión de fondos de pensiones de empleo, que ha sido sustituida por la Directiva (UE) 2016/2341 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 14 de diciembre de 2016, relativa a las actividades y la supervisión de los fondos de pensiones de empleo. De igual forma, se sustituye la remisión hecha en el artículo 27 al anexo I del texto refundido de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, aprobado por el Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, por el actualmente vigente anexo I del texto refundido de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, aprobado por el Real Decreto Legislativo 6/2015, de 30 de octubre.

Otro grupo de modificaciones relacionadas unas con otras, son las cuatro modificaciones referenciadas a las entidades innovadoras de nueva creación, contempladas en el apartado 1 del artículo 89 ter de la norma foral. La primera de ellas se refiere a la regulación contenida en el artículo 17, y se trata de que la diferencia positiva entre el valor normal de mercado y el valor de adquisición de acciones y participaciones por parte de las personas trabajadoras, que se ponga de manifiesto con ocasión del ejercicio de opciones sobre acciones o participaciones de entidades a las que se refiere el artículo 89 ter.1 de la norma foral, no tenga la consideración de rendimiento de trabajo en especie cuando el ejercicio del derecho de opción se efectúe transcurridos un mínimo de tres años desde su concesión, persiguiendo con ello la estabilidad y proyección hacia el futuro del proyecto empresarial constituido por las personas trabajadoras. Con la misma motivación se modifica el artículo 20, relativo a las opciones sobre acciones.

La tercera modificación afecta al artículo 66, que regula la integración y compensación de rentas en la base imponible del ahorro. En este caso se permite compensar en un plazo de 10

leen akzio edo partaidetzak kostu bidez eskualdatzeagatik gertatzen diren ondare galerak 10 urteko epean konpentsatzea (4koa da epe orokorra), akzio edo partaidetza horien harpidetzak eskubidea eman badu sorrera berriko entitate berritzaileak eratzeagatik 89 ter artikuluko 1. apartatuan aurreikusitako kenkaria aplikatzeko. Azkenik, 89 ter artikuluan luzatu egiten da entitate bat «sorrera berrikotzat» hartzeko epea, eta epe hori bost urtekoa izatetik zazpi urtekoa izatera pasatzen da, eraketatik kontatuta. Bi neurri horiek 2020ko ekitaldirako ere onartu ziren.

Ohiko etxebizitza alokatzeagatik araututa dagoen kenkariaren ondorioetarako, berritzailea gertatzen da etxebizitza kooperatibetako edo beste elkarte mota batzuetako bazkideek edo irabazi asmorik gabeko elkarteetako kideek erabilera lagapeneko araubidean ohiko etxebizitzagatik ordaintzen dituzten kanon edo errenta sozialak ohiko etxebizitza alokatzeagatik ordaintzeko zenbatekoekin parekatzen direla, kasu jakin batzuetan.

Foru arauaren 2. artikuluan Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauan sartzen ditu aldaketak, eta, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan bezala, hemen ere aldaketa horiek une desberdinetan hasten dira izaten ondorioak. Horrela, 2020ko urtarilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan ondorioak izateko, artikuluko honek bost apartatu sartzen ditu, bakoitza aldaketa banarekin.

Lehenengoa 14. artikuluan araututako ondare sozietateei buruzkoa da, eta entitate bat ondare sozietatetzat hartzeko eskatzen den baldintzari eragiten dio, alegia, sozietatearen aktiboen erdia baloreek osatua behar duela izan. Bada, ondorio horietarako, kanpoan uzten diren baloreen barruan sartzen dira baldintza jakin batzuk betetzen dituzten arrisku-kapitaleko sozietate eta funtsetan pertsona fisikoek zeharka parte hartzea artikulatzen dutenak. Baldintza horietako bat da eskubide ekonomiko bereziak honako hauek jasotzea, zuzenean edo zeharka: inbertsio itxiko entitateen sozietate kudeatzaile batean edo kudeatzaile gisa diharduen arrisku-kapitaleko sozietate batean lan egiten dutenek edo lan egindakoak direnek, edo haietan goi zuzendaritzako kide direnek edo kide izandakoek. Testuinguru horretan, aldaketaren helburua da argitzea baldintza hori betetzat joko dela partaidetzen titulartasuna ezkontideek edo izatezko bikotekideek partekatzen dutenean, eta horietako bat aipatutako sozietate kudeatzailean edo arrisku-kapitaleko sozietatean langile edo goi zuzendaritzako kide denean edo izan denean, hori guztia Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauaren 34. artikuluan sartu den aldaketaren zentzu berean.

Bigarren aldaketak zerikusia du ondare elementuen balio narriaduragatik galerak sortzen dituzten kaudimengabeziei lotutako gastuen zuzenketarekin (22. artikulua). Bertan ezartzen denez, zordunen kaudimengabeziengatik kredituen narriadurak ekar ditzakeen galerak kengarriak izango dira, baldin eta zergaren sortzapenaren unean zirkunstantzia hauetakoren bat gertatzen bada: zorduna konkurtso egoeran egotea, edo obligazioak epaile bidez erreklamatuak izatea edo auzi judicial edo arbitrajezko jardunbidean egotea. Aldaketa honekin, ahalbidetzen da kenkari hori aplikatu ahal izatea zirkunstantzia horiek autoliquidazioa aurkezteko epea hasi aurretik gertatzen direnean.

Hirugarren aldaketak eguneratzen du Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatuko I. eranskinera 31. artikuluan egiten den igorpena (martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako testu bategina). Izan ere, lehenago adierazi bezala, orain gaur egun indarrean dagoen 1. eranskinera egiten da igorpena (Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Bategina, urriaren 30ekoa 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia).

años (siendo 4 el plazo general) las pérdidas patrimoniales derivadas de la transmisión onerosa de acciones o participaciones de entidades innovadoras cuya suscripción hubiera dado derecho a aplicar la deducción por la constitución de entidades innovadoras de nueva creación prevista en el apartado 1 del artículo 89 ter. Por último, en el artículo 89 ter se amplía el plazo para considerar a una entidad «de nueva creación», de manera que este plazo pasa de ser de cinco a siete años desde su constitución. Estas dos medidas ya fueron aprobadas para el ejercicio 2020.

Resulta novedosa, a efectos de la deducción por alquiler de vivienda habitual, la asimilación a las cantidades satisfechas por el alquiler de la vivienda habitual de los cánones o rentas sociales que los socios de cooperativas de vivienda u otras formas asociativas, o los asociados de asociaciones sin ánimo de lucro abonon por la vivienda habitual en régimen de cesión de uso, en determinados supuestos.

El artículo 2 de la norma foral incluye modificaciones en la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y al igual que en el impuesto sobre la renta de las personas físicas, se distinguen distintos efectos temporales. Así, con efectos para los períodos impositivos iniciados a partir de 1 de enero de 2020 se incluyen cinco apartados con otras tantas modificaciones.

La primera de ellas incide sobre las sociedades patrimoniales reguladas en el artículo 14 y afecta al cumplimiento del requisito de que la mitad del activo de la sociedad esté constituido por valores para su consideración como sociedad patrimonial. Pues bien, a tales efectos dentro de los valores excluidos se comprenden los que articulan la participación indirecta de personas físicas en sociedades y fondos de capital riesgo que cumplen una serie de condiciones. Entre dicho condicionado se encuentra el de que los derechos económicos de carácter especial se perciban, directa o indirectamente, por personas que ostenten o hayan ostentado la condición de trabajadora o alta directiva en una sociedad gestora de entidades de inversión de tipo cerrado o bien en una sociedad de capital riesgo, cuando la misma actúe como sociedad gestora. En este contexto, la modificación pretende aclarar que se entiende cumplida dicho requisito cuando la titularidad de las participaciones sea compartida por cónyuges o miembros de la pareja de hecho, y una o uno de ellos ostente o haya ostentado la condición de persona trabajadora o alta directiva en las citadas sociedad gestora o sociedad de capital riesgo, en los mismos términos que la modificación incluida en el artículo 34 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

La segunda está referida a la corrección en materia de gastos relacionados con las insolvencias que generan pérdidas por deterioro de valor de elementos patrimoniales, recogidas en el artículo 22. En el mismo se recoge que serán deducibles las pérdidas por deterioro de los créditos derivadas de las posibles insolvencias de las personas deudoras, cuando en el momento del devengo del impuesto concurren, entre otras, las circunstancias de que la persona deudora esté declarada en situación de concurso o que las obligaciones hayan sido reclamadas judicialmente o sean objeto de un litigio judicial o procedimiento arbitral. La modificación consiste en la posibilidad de aplicar dicha deducción cuando tales circunstancias concurren antes del inicio del plazo para la presentación de la autoliquidación.

La tercera modificación actualiza la remisión en el artículo 31 al anexo I del texto articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, aprobado por el Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, que como ya se ha dicho anteriormente, ha sido sustituida por el anexo I del texto refundido de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, aprobado por el Real Decreto Legislativo 6/2015, de 30 de octubre.

Laugarren aldaketak zuzentzen du zergaren foru arauko 54. artikuluan 11. apartaturik ez egotea.

Bosgarren aldaketak 123. artikuluan aipatzen diren aitortu gabeko errentekin du zerikusia, atzerrian kokatutako ondasun eta eskubideei buruz informatzeko betebeharra betetzen ez deanean; izan ere, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kasuan bezala, errenta horien tratamendua aldatu egiten da, lehen adierazitako zentzu berean.

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan ondorioak izateko, zortzi apartatu bereizten dira, aldaketa banarekin. Azaltzeko garaian, horietako batzuk elkartu egin daitezke, oinarrian motibazio bera dutelako. Hala gertatzen da, esate baterako, enpresak berregituratzeko araubidearen inguruan zergaren foru arauaren VI. tituluko VII. kapituluko 105., 106. eta 111. artikuluei eragiten dieten aldaketekin. Aldaketa horien bidez, artikulua horietan jasota dagoen erregulazioa ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunengana hedatzen da.

Enpresak berregituratzeko araubide bereziarekin ere lotuta, zuzenketa tekniko bat egiten 101. artikuluan, eta 107 bis artikulua gehitzen da, entitateen kapitalean edo funts propioetan partaidetzak eskuratzera bideratutako finantza gastuen kenkaria mugatzeko.

Bestalde, 51. artikulua aldatzen da kenkariaren oinarria aldatzeko helburuz eta bide batez oztopoak kendu eta kenkaria aplikatzea errazagoa izan dadin, zerga ondorioetarako ondare garbiari eragiten dioten zuzenketak aldatzen direlako. Azken neurri horrek beharrezko egiten du erregulazio iragankor bat ezartzea 51. artikulua 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen aplikatu zutenentzat. Haren bitartez finkatzen da ondare garbiaren zer kontzeptu aplikatu behar den, zerga ondorioetarako, aipatutako artikuluan aurreikusten den iraupen epea bete behar den bitartean.

Azkenik, hamabosgarren xedapen gehigarrian aldaketak sartzeko ikus-entzunezko lanen ekoizpenarekin lotuta, eta helburua da Europar Batasunak emandako agindua betetzea, hau da, jasota utzi beharra dagoela, berariaz, ikus-entzunezko lanen ekoizpenerako laguntzen araubidea onartu eta Europako Batzordeari jakinarazteko erregelamendua 2023ra arte luzatu dela. Horrek esan nahi du laguntzen araubidea berriro jakinarazi beharko dela, eta 2023-12-31ra arte izango dituela ondorioak.

3. artikulua ekainaren 11ko 2/2018 Foru Araua aldatzen du, Ondarearen gaineko Zergarena. 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, 5. artikulua aldatzen da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko ekainaren 3ko 2003/41/EE Zuzentaraua egiten zen igorpena kendu eta, haren ordean, zuzentarau hau aipatzeko: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341/EB Zuzentaraua, enpleguko pentsio funtsen jarduerari eta gainbegiratzeari buruzkoa.

4. artikulua abenduaren 30eko 18/1987 Foru Araua aldatzen du, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarena, eta hiru arlotan egiten du hori. Batetik, zuzenketa tekniko bat egiten da 28. artikulua euskarazko bertsiotan; bestetik, arauaren barruan sartzeko da lehenago Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitateen Zerga Araubideari buruzko uztailaren 15eko 7/1988 Foru Arauan jasotzen zen salbuespena, zeina, araugintzako sistematika arrazoiengatik, ukitzen duen zergaren erregulazioa eramaten baita esanez salbuespen hori pentsio funtsei ere aplikatu dakiekeela eragiketa berberengatik; eta, azkenik, «Egintza juridiko dokumentatuen» modalitateko mailakako kargari dagokionez, ahalbidetzen da lokal bat erosteko kreditua bermatzen duen hipoteka eratu edo deuseztatu dela dokumentatzen duten notario eskrituren lehenengo kopiei dagokien zerga itzulketa eskatzea, baldin eta lokal hori etxebizitza gisa gaitu bada erosi zenetik 18 hilabeteko epean eta hau ohiko etxebizitza bada.

La cuarta modificación corrige la carencia de un apartado 11 en el artículo 54 de la Norma Foral del Impuesto.

La quinta modificación tiene relación con las rentas no declaradas a que se refiere el artículo 123 en caso de incumplimiento de la obligación de información sobre bienes y derechos situados en el extranjero, que como en el caso del impuesto sobre la renta de las personas físicas, su tratamiento es objeto de modificación en el mismo sentido manifestado anteriormente.

Con efectos para los períodos impositivos iniciados a partir de 1 de enero de 2021 se incluyen ocho apartados con otras tantas modificaciones, algunas de las cuales pueden ser objeto de agrupamiento en su explicación porque responden a la misma motivación. Es el caso de las modificaciones que afectan a los artículos 105, 106 y 111, todos ellos referidos al régimen de reestructuración empresarial previsto en el capítulo VII del título VI de la Norma Foral del Impuesto. A través de dichas modificaciones se extiende la regulación contenida en dichos artículos a los contribuyentes del impuesto sobre la renta de no residentes.

También en relación al régimen especial de reestructuración empresarial, en el artículo 101 se efectúa una corrección técnica y, se adiciona un artículo 107 bis para incluir en el referido régimen especial una limitación en la deducción de gastos financieros destinados a la adquisición de participaciones en el capital o en los fondos propios de entidades.

Por otra parte, se modifica el artículo 51 con el objeto de ajustar las correcciones que afectan al patrimonio neto a efectos fiscales, con el fin de eliminar obstáculos y facilitar la aplicación de la capitalización de las empresas. Esta última medida precisa de una regulación transitoria que afecta a quienes aplicaron el artículo 51 con anterioridad a 1 de enero de 2021. En ella se determina qué concepto de patrimonio neto a efectos fiscales resulta de aplicación durante el período de cumplimiento del deber de permanencia previsto en el citado artículo.

Por último, se modifica la disposición adicional decimoquinta, en relación a la producción de obras audiovisuales, para cumplir con el mandato comunitario de recoger expresamente que el reglamento en virtud del cual se aprobó y comunicó a la Comisión Europea el régimen de ayudas a la producción de obras audiovisuales ha sido prorrogado hasta 2023. Ello supone que el régimen de ayudas deberá ser nuevamente comunicado y tendrá efectos hasta el 31-12-2023.

El artículo 3 modifica la Norma Foral 2/2018, de 11 de junio, del Impuesto sobre el Patrimonio. Con efectos a partir de 1 de enero de 2020, incluye la modificación del artículo 5 en la que se sustituye la remisión a la Directiva 2003/41/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 3 de junio de 2003, relativa a las actividades y la supervisión de fondos de pensiones de empleo, por la remisión a la Directiva (UE) 2016/2341 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 14 de diciembre de 2016, relativa a las actividades y la supervisión de los fondos de pensiones de empleo.

